Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko ekainaren 23a, osteguna — 119 — Jueves, a 23 de junio de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## BERGARAKO UDALA

*Iragarkia*

Alkateak 2022ko maiatzaren 26an emandako dekretu baten bidez erabaki zuen Bergarako baratza parkeko aisialdiko baratze ekologikoak erabiltzeko baimenak emateko deialdi publikoaren oinarriak onartzea (jarraian argitaratzen dira); kontuan izanik baratza publikoen erabilera arautzen duen Ordenantzaren onarpena izapidetzen ari dela eta baratzen adjudikazioa ez dela egingo Ordenantzak behin betiko onarpena izan arte.

*Bergarako Baratze-Parkeko aisialdiko baratze ekologikoak erabiltzeko baimenak emateko deialdia.*

1. *Deialdiaren helburua.*

Deialdi honen helburua da Bergarako Baratze Parkeko baratze publikoak erabiltzeko baimenak emateko baldintzak ezartzea, San Joxepe inguruko herri-lurretan kokatuak daudenak.

Baratzeen eta haien instalazioen ezaugarriak Bergarako Baratze Parkea proiektuan jasotakoak dira. Parkeak 30-50 m² bitarteko 96 baratze erabilgarri ditu gaur egun, eta gainerako azalera komunitate-erabilerakoa izango da (lanabesen etxola, bideak, ureztatzeko putzuak, konpost guneak, etab.).

2. *Erabilera erregimena eta prezioa.*

Baratzeak erabiltzeko lagapena, urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte, eta gehienez 2025eko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango da.

Erabilera erregimena eta baldintzak Bergarako Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketarako araudian zein agiri honetan eta emango zaien baimenean ezarritakoak izango dira.

Ohartarazten da Bergarako Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketarako araudiak hasierako onarpena jaso duela eta jendaurrean dagoela Udalaren iragarki-taulan zein webgunean. Behin betiko onarpena jaso eta indarrean sartzen denean berau betetzea beharrezkoa izango da baratze publikoen erabiltzaileentzako. Edozein arrazoirengatik ez balitz behin betirako onartuko araudia, agiri honen arabera egindako deialdi hau bertan behera geratzea ekarriko luke.

Baratze publikoaren erabilerari dagokion tasa ordenantza fiskaletan ezarritakoa izango da. Adjudikazio-hartzaileek ezarri beharreko fidantza berriz 50 eurokoa izango da.

3. *Onuradun izateko baldintzak.*

Aisialdiko baratze ekologikoak erabiltzeko lagapenaren onuradun izan daiteke, eta beraz deialdira aurkeztu daiteke honako baldintzak betetzen dituzten eta adinez nagusiak diren pertsona oro:

a) Bergaran erroldatuta egotea deialdiaren gaineko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik eta, onuradun izanez gero, erroldatuta jarraitzea.

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

*Anuncio*

El Alcalde mediante Decreto de 26 de mayo de 2022 resolvió aprobar las bases de la convocatoria pública para la concesión de autorizaciones de uso de huertos ecológicos de ocio en el «Baratze-Parkea» de Bergara (se publican a continuación); considerando, que las Ordenanzas reguladoras del uso de las huertas públicas están en tramite de aprobación y que la adjudicación de las huertas no se realizará hasta la aprobación definitiva de la expresada Ordenanza.

*Convocatoria para la concesión de autorizaciones de uso de huertos ecológicos de ocio en el «Baratze-Parkea» de Bergara.*

1. *Objeto de la convocatoria.*

Constituye objeto de la presente convocatoria establecer las condiciones que regirán la concesión de autorizaciones de uso de los huertos públicos del «Baratze Parkea» de Bergara, situados en terrenos públicos del entorno de San Joxepe.

Las características de los huertos y sus instalaciones son las recogidas en el proyecto de «Bergarako Baratze Parkea» (Parque de Huertos de Bergara). El parque cuenta actualmente con 96 huertos utilizables de entre 30 y 50 m², siendo el resto de la superficie de uso comunitario (caseta de aperos, caminos, pozos de riego, zonas de compostaje, etc.).

2. *Régimen de uso y precio.*

La cesión de uso de los huertos será hasta el 31 de diciembre de cada año, pudiendo prorrogarse como máximo hasta el 31 de diciembre de 2025.

El régimen de uso y condiciones serán los establecidos en la Ordenanza para la Adjudicación y Gestión de los Huertos Ecológicos de Bergara, en el presente documento y en la autorización que se les otorgue.

Se advierte que la Ordenanza para la Adjudicación y Gestión de los Huertos Ecológicos de Bergara ha sido aprobada inicialmente y se encuentra expuesta al público tanto en el tablón de anuncios del ayuntamiento como en la página web. Cuando sea definitivamente aprobada y entre en vigor, será de obligado cumplimiento para las personas usuarias de los huertos públicos. En caso de que, por cualquier causa, la ordenanza no fuera definitivamente aprobada, esta convocatoria que ha sido realizada de conformidad con el presente documento quedará sin efecto.

La tasa por uso de huerto público será la que se establezca en las ordenanzas fiscales. Las personas adjudicatarias deberán depositar una fianza de 50 euros.

3. *Requisitos para ser persona beneficiaria.*

Podrán ser beneficiarias de la cesión de uso de los huertos ecológicos de ocio y presentarse a la convocatoria aquellas personas mayores de edad que cumplan los siguientes requisitos o condiciones:

a) Estar empadronada en Bergara con al menos 6 meses de antelación a la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y, en caso de resultar beneficiaria, permanecer empadronada.

EK\CV GAO-I-2022-04093

b) Bergarako Udalarekin zerga edo beste mota bateko betebeharretan egunean egotea.

c) Familia-unitatearen beste inolako kiderik beste baratze ekologiko baten esleipendun ez izatea.

Baratze baten onuradun izateko honako baldintza hauek ere bete beharko dira:

— Udalak antolatutako baratzegintza ekologikoari buruzko ikastaroa aurretiaz osatzea. Ikastaro hau Udalak edo elkarteak antolatuko du baratze publikoen esleipenerako zozketa egin ondoren, behin-behinean esleipendunak izan direnentzako zuzenduta, baita itxoite-zerrenda osatu lezaketenentzako, hala eskatuko balute.

— Agiri honetako 2. Puntuan zehaztutako fidantza ezartzea Udal Diruzaintzan.

— Bergarako Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketarako araudian zehaztutakoa betetzea.

*4. Eskaera-eredua.*

Eskaera baldintza-orri hauen I. eranskin gisa erantsitako eskaera-ereduari jarraituz egin beharko da.

*5. Deialdian parte hartzeko baldintzak.*

Deialdian parte hartzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Bergaran erroldatuta egotea deialdiaren gaineko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik.

b) Bergarako Udalarekin zerga edo beste mota bateko betebeharretan egunean egotea.

c) Familia-unitatearen beste inolako kiderik beste baratze ekologiko baten esleipendun ez izatea.

Baldintza horiek bete eta gainera honako egoera hauetako batean daudenek baratze bat esleitzeko egingo den zozketan 2 zenbaki izango dituzte:

— Langabezian egotea.

— Gizarte larrialdietarako laguntzen onuradun izatea.

Eskaera bakarra egin ahal izango da bizikidetza-unitate bakoitzeko.

*6. Eskaerak aurkezteko lekua eta epea.*

Zozketan parte hartzeko, interesdunek baldintza-orri hauen I. eranskin gisa datorren eskaera ereduari jarraituz egindako eskaera Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute 15 laneguneko epean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) NANaren edo legez haren ordezkoa den dokumentua.

b) Langabetua dela egiaztatzen duen Lanbideren agiria, egoera hori kontuan izatea nahiko baluke.

Udalak ofizioz egiaztatuko du:

— Bergaran erroldatuta dagoen.

— Bergarako udalarekin zerga edo beste mota bateko betebeharretan egunean dagoen.

— Alegatu badu, gizarte larrialdietarako laguntzen onuradun den.

Udalak ezarritako baldintzak justifikatzeko egoki iritzitako dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

b) Estar al corriente en sus obligaciones tributarias y de otra índole respecto al Ayuntamiento de Bergara.

c) Que ningún otro miembro de la unidad familiar sea adjudicatario de otro huerto ecológico.

Para ser beneficiaria de un huerto, también se deben cumplir las siguientes condiciones:

— Realizar previamente el curso de horticultura ecológica organizado por el ayuntamiento. Este curso, que será organizado por el ayuntamiento o por la asociación una vez realizado el sorteo de adjudicación de los huertos públicos, irá dirigido a aquellas personas que hayan resultado adjudicatarias provisionalmente, así como a aquellas que pudieran figurar en la lista de espera si así lo solicitaran.

— Depositar en la Tesorería Municipal la fianza indicada en el punto 2 del presente documento.

— Dar cumplimiento a lo establecido en la Ordenanza para la Adjudicación y Gestión de los Huertos Ecológicos de Bergara.

*4. Modelo de instancia.*

La solicitud se formulará conforme al modelo de instancia que se adjunta como anexo I al presente documento de condiciones.

*5. Condiciones para tomar parte en la convocatoria.*

Para participar en la convocatoria, se deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Estar empadronada en Bergara con al menos 6 meses de antelación a la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

b) Estar al corriente en sus obligaciones tributarias y de otra índole respecto al Ayuntamiento de Bergara.

c) Que ningún otro miembro de la unidad familiar sea adjudicatario de otro huerto ecológico.

Las personas que cumplan dichos requisitos y además se encuentren en alguna de las situaciones siguientes dispondrán de 2 números en el sorteo para la adjudicación de huerto:

— Encontrarse en situación de desempleo.

— Ser beneficiaria de las ayudas de emergencia social (AES).

Sólo se podrá realizar una solicitud por cada unidad convivencial.

*6. Lugar y plazo de presentación de solicitudes.*

Para tomar parte en el sorteo, las personas interesadas deberán presentar en el Registro General la solicitud cumplimentada conforme al modelo de instancia que se adjunta como anexo I a las presentes condiciones, en el plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Junto con la instancia, se deberá presentar la siguiente documentación:

a) DNI o documento legalmente equivalente.

b) Documento expedido por Lanbide donde se acredite su situación de desempleo, si desea que se tenga en cuenta dicha circunstancia.

El ayuntamiento comprobará de oficio:

— Si está empadronada en Bergara.

— Si está al corriente en sus obligaciones tributarias y de otra índole respecto al Ayuntamiento de Bergara.

— En caso de haberlo alegado, si es beneficiaria de las ayudas de emergencia social (AES).

El ayuntamiento podrá requerir a la persona solicitante la documentación complementaria que estime oportuna para justificar las condiciones establecidas.

*7. Aurretiko zerrenda eta erreklamazioak.*

Bergarako Udalak, eskaeretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko beharrezko egiaztapenak egin ondoren, baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen aurretiko zerrenda bat egingo du. Aurretiko zerrenda honetan ez da eskaera bat baino gehiago onartuko bizikidetza unitate bakoitzeko. Beraz, Udaleko bulegoetan erregistratzen den lehenengoa onartuko da.

Ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen aurretiko zerrenda Udaleko iragarki taulan eta Udalaren web-orrialdean argitaratuko da, hamar (10) egun naturaleko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

*8. Zozketan parte hartzeko behin betiko zerrendak eta baratzeen zerrendak.*

1. Erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko da Udaleko iragarki taulan eta web-orrialdean.

Behin betiko ebazpenaren aurka, berraztertzeko errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, hala badagokio, Donostiako Administrazio Auzietarako Epaitegian.

Honako datu hauek agertuko dira behin betiko zerrendan:

— Eskaeran agertzen den pertsonaren nortasun agiria.

— Antolakuntzak eskatzaile bakoitzari esleitutako zenbakia (edo zenbakiak).

— Dagokion adin tartea.

2. Aipatu bezala, parte-hartzaileen behin betiko zerrendarekin batera, lizitazio honen xede diren baratzeen zerrendaren berri emango da.

*9. Esleitzeko modua eta irizpideak.*

Baratzeak zozketa publikoaren bidez esleituko dira. Partzelak 1 zenbakitik 98ra zenbatuak daude. Zozketatuko diren lursailak 96 izango dira guztira, izan ere 2 lursail zozketatik kanpo utziko dira.

Parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitaratzen denean, zozketaren eguna, ordua eta lekua jakinaraziko dira.

Zozketa Bergarako Udaleko idazkariaren aurrean edo hark ordezko gisa izendatzen duenaren aurrean egingo da, horretarako finkatutako lekuan. Sarrera librea izango da zozketa ikusi nahi duen ororentzat.

Alkatea edo berak izendatutako zinegotzia izango da zozketaren buru.

Aipatutako zozketen eta gorabeheren akta egingo du Udaleko idazkariak edo idazkari lanetan diharduenak.

Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzari zenbaki bat emango zaio zozketarako. Bi zenbaki emango zaizkie berriz, alegatu eta egiaztatu dutenei langabezian dagoela edo gizarte larrialdietarako laguntzen onuradun direla.

Bestalde, belaunaldi arteko harremana sustatzeko, jarraian zehazten diren adin-tarte bakoitzarentzako kuota edo baratze kopuru bat gordeko da:

— <40 urte: zozketan jartzen diren baratzeen 1/3, guztira 32 lursail.

— 41-65 urte: zozketan jartzen diren baratzeen 1/3, guztira 32 lursail.

— >65 urte: zozketan jartzen diren baratzeen 1/3, guztira 32 lursail.

Tarte batean edo bestean sartzeko 2022an zenbat urte betetzen duen eskatzaileak hartuko da kontuan.

*7. Listado previo y reclamaciones.*

El Ayuntamiento de Bergara, una vez realizadas las comprobaciones necesarias para acreditar la veracidad de los datos contenidos en las solicitudes, elaborará un listado previo de personas solicitantes que cumplan los requisitos. En dicho listado no se admitirá más de una solicitud por cada unidad convivencial, de modo que se aprobará la primera que se registre en las oficinas del ayuntamiento.

A continuación, el listado previo de personas admitidas y excluidas será publicado en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en su página web, con un plazo de diez (10) días naturales para poder presentar reclamaciones.

*8. Listados definitivos para la participación en el sorteo y listados de huertos.*

1. Una vez resueltas las reclamaciones, el listado definitivo de personas admitidas y excluidas será publicado en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web.

Contra la resolución definitiva podrá interponerse recurso de reposición o recurso contencioso-administrativo, en su caso, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián.

En el listado definitivo figurarán los siguientes datos:

— Documento de identidad de la persona que figura en la solicitud.

— Número (o números) asignado por la organización a cada solicitante.

— El intervalo de edad correspondiente.

2. Como se ha indicado, junto con el listado definitivo de participantes, se dará cuenta del listado de huertos objeto de esta licitación.

*9. Modo y criterios de adjudicación.*

Las huertas se adjudicarán mediante sorteo público. Las parcelas están numeradas del número 1 al 98. El número total de parcelas a sortear será de 96, ya que 2 de ellas serán excluidas del sorteo.

En la publicación de la lista definitiva de participantes, se dará a conocer también la fecha, hora y lugar del sorteo.

El sorteo se realizará en presencia de la secretaria del Ayuntamiento de Bergara o de la persona que aquella designe como suplente, en el lugar establecido al efecto, con entrada libre para todas las personas que quieran asistir.

El sorteo estará presidido por el alcalde o concejal que aquel designe.

La secretaria municipal, o quien actúe como tal, levantará acta de dichos sorteos y sus incidencias.

A cada solicitante que cumpla los requisitos se le asignará un número para el sorteo. Sin embargo, se asignarán dos números a las personas que hayan alegado y acreditado estar en situación de desempleo o ser beneficiarias de las ayudas de emergencia social (AES).

Por otro lado, a fin de fomentar las relaciones intergeneracionales, se reservará una cuota o número de huertos para cada uno de los tramos de edad que se detallan a continuación:

— <40 años: 1/3 de los huertos sorteados, es decir, un total de 32 parcelas.

— 41-65 años: 1/3 de los huertos sorteados, es decir, un total de 32 parcelas.

— >65 años: 1/3 de los huertos sorteados, es decir, un total de 32 parcelas.

Para encuadrarse en uno u otro tramo, se tendrá en cuenta el número de años que la persona solicitante cumpla en el año 2022.

EK\CV GAO-I-2022-04093

Parte-hartzaileen behin betiko zerrenda prestatuko da eta bertan adieraziko da zein adin tartetan dagoen parte-hartzailea. Zozketan behin betiko zerrendan sartutako parte-hartzaile guztiak sartuko dira, eta zozketa bidez zehaztuko da horien artean hurrenkera. Ondoren eta kontuan hartuta adin-tarteak eta puntu honetako hurrengo pasarteetan zehaztutako irizpideak behin-behineko esleipendunak zehaztuko dira. Adin-tarteren batean ez balego nahiko eskatzaile adin-tarte horretarako gordetako baratzeak betetzeko, beste bi adin-tarteetan baratzerik tokatu ez zaien pertsonen artean esleituko dira, zozketan ateratako hurrenkera errespetatuz.

Partzelak 1. zenbakitik 98. zenbakiraino esleituko dira (zozketatik kanpo geratzen diren bi lursailak ezik), goitik behera, eta ezkerretik eskuinera, pertsona esleipendunen zerrenda ordenatuari jarraituz eta honako hurrenkera errespetatuta: lehenengo baratzea 40 urtetik azpikoari, bigarrena 41-65 urte bitartekoari eta hirugarrena. 65 urtetik gorakoari eta ordena horri jarraituz gainontzekoak.

Zozketarako bi zenbaki ematen zaion pertsonetako bat zozketan esleipendun suertatuz gero, esleitu zaizkion gainerako zenbakiak zozketatik kanpo geratuko dira, baratze bat baino gehiago lortu ahal izan ez dezaten.

Partzelarik esleitzen ez zaien zozketan parte hartzen dutenek itxoite-zerrenda osatuko dute, zozketan ezarritako ordenari eutsiz.

*10. Esleipendunen behin-behineko zerrenda eta itxoite-zerrenda.*

1. Esleipendunen behin-behineko zerrendak eta itxoite-zerrenda Udaleko iragarki taulan eta web-orrialdean argitaratuko dira, eta hiru egun naturaleko epea emango erreklamazioetarako.

2. Esleipendunei baratzeen behin-behineko esleipenaren berri emango zaie, eta hiru eguneko epea emango zaie esleipenari uko egiteko edo esleipena onartzeko. Uko egitea idatziz aurkeztu beharko da Erregistro Orokorrean, eta idatzirik aurkeztu ezean esleipena onartzen dutela ulertuko da.

Erreklamaziorik balego horiek aztertuta behin betiko zerrenda egingo da behin-behineko esleipen-hartzaileekin, eta web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko da.

Halaber, adieraziko da 3. puntuan aipatutako ikastaroa noiz izango den eta fidantza ezartzeko zein epe duten.

Bi betebehar horiek beteta behin-behineko esleipendunak behin betiko bihurtuko dira. Aldiz, esleipendunak baldintza-orri hauetan eta indarreko arautegian ezarritako baldintzak ez dituela betetzen egiaztatuz gero, pertsona horri edo bizikidetza unitate horri dagokion baratzea libre geratuko da eta berriro esleituko da, itxoite-zerrendako ordenari jarraituz.

Aipaturiko erabakia hartuz gero, Bergarako Udalak irekita uzten du behin betiko kalifikazioa egiterakoan esleipendun batzuk baztertzeko aukera, baldin eta baratzeak eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen ez badituzte.

*11. Behin betiko zerrendak, itxoite-zerrenda eta esleipen-prozesua.*

1. Epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez bada, edo, hala badagokio, erreklamazioak argitu ondoren, Bergarako Udalak erabakia hartuko du eta behin betiko zerrenda osatu eta baratzeak esleituko ditu.

2. Halaber, behin betiko itxoite-zerrenda osatuko dute ezarritako baldintzak bete arren baratzerik esleitu ez zaien eskatzaileek.

Itxoite-zerrendak ondorioak izango ditu libre dauden baratzeak esleitzeari dagokionez hasieran hautatutako eskatzaileren batek

En el listado definitivo de participantes que se confeccionará, se indicará también la franja de edad en la que se encuentra la persona participante. Entre todas las personas participantes que figuran en la lista definitiva se realizará el sorteo que determinará su orden. A continuación, y teniendo en cuenta las franjas de edad y los criterios especificados en los siguientes apartados de este punto, se determinarán quiénes son las personas adjudicatarias provisionales. En caso de que en algún tramo de edad no haya solicitantes suficientes para todos los huertos reservados para dicha franja, estos se adjudicarán entre las personas de las otras dos franjas que no hayan obtenido huerto, respetando siempre el orden resultante en el sorteo.

Las parcelas se adjudicarán del número 1 al 98 (excepto las dos parcelas que quedan fuera del sorteo), de arriba abajo, y de izquierda a derecha, siguiendo el listado ordenado de personas adjudicatarias y respetando el siguiente orden: primer huerto a menores de 40 años, segundo a personas entre 41 y 65 años, y tercero a mayores de 65 años, siguiendo el resto por este orden.

En caso de que alguna de las personas a las que se les ha asignado dos números para el sorteo resultara adjudicataria en el sorteo, el resto de los números que le han sido asignados quedarán fuera del mismo, de modo que no puedan obtener más de un huerto.

Las personas que participando en el sorteo no resulten adjudicatarias de parcela conformarán una lista de espera de acuerdo con el orden establecido en el sorteo.

*10. Listado provisional de personas adjudicatarias y lista de espera.*

1. Los listados provisionales de personas adjudicatarias y la lista de espera se publicarán en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web, concediendo un plazo de tres días naturales para reclamaciones.

2. Se comunicará a las personas adjudicatarias la adjudicación provisional de los huertos, concediéndoles un plazo de tres días para renunciar a la adjudicación o para aceptarla. La renuncia deberá presentarse por escrito en el Registro General y, en su defecto, se entenderá que se acepta la adjudicación.

Una vez estudiadas las reclamaciones, si las hubiere, se elaborará el listado definitivo con las personas adjudicatarias provisionales, listado que será publicado en la página web y en el tablón de anuncios.

Asimismo, se indicará cuándo tendrá lugar el curso mencionado en el punto 3 y qué plazo tienen para depositar la fianza.

Una vez cumplidas ambas obligaciones, las personas adjudicatarias provisionales pasarán a ser adjudicatarias definitivas. No obstante, si se comprobara que la persona adjudicataria no cumple los requisitos establecidos en este documento de condiciones y en la normativa vigente, el huerto correspondiente a dicha persona o unidad convivencial quedará libre y se volverá a adjudicar conforme al orden de la lista de espera.

En caso de adoptarse dicha decisión, el Ayuntamiento de Bergara al realizar la calificación definitiva se reserva la posibilidad de excluir a las personas adjudicatarias que no reúnan los requisitos para poder acceder a los huertos.

*11. Listados definitivos, lista de espera y proceso de adjudicación.*

1. Transcurrido el plazo sin que se hubieran presentado reclamaciones o, en su caso, dirimidas éstas, el Ayuntamiento de Bergara resolverá y elaborará la lista definitiva y adjudicará los huertos.

2. Asimismo, se conformará una lista de espera definitiva con las personas solicitantes que aun cumpliendo las condiciones establecidas no hayan conseguido ser adjudicatarias de huerto.

La lista de espera surtirá efectos en cuanto a la adjudicación de los huertos que queden libres por renuncia o pérdida de

EK\CV GAO-I-2022-04093

esleipendun izaerari uko egiten badio edo esleipendun izaera galtzen badu. Kasu horretan, emakida epea 2025eko abenduaren 31ra arteko epea amaitzeko geratzen dena izango da.

3. Esleipen prozesua itxi ondoren eta behin betiko itxoitezerrenda osatu ondoren, eskaera berririk aurkeztuko balitz, I. eranskineko formularioa beteta aurkeztu beharko lirateke. Ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak itxoite-zerrendan sartuko dira, betiere zerrenda horretan jada inskribatuta daudenen atzetik eta eskaeren ordena kronologikoan.

4. Baimenen gehieneko epea igaro ondoren, Udalak beste deialdi bat egingo du baratzeak esleitzeko, eta oinarri eta baldintza berriak onartu ahal izango ditu.

Aurreko emakida-aldian baratzeak erabili dituzten onuradunek deialdi berrian ere izena emateko aukera izango dute. Berriro esleipendun suertatzen badira, lehen erabili duten baratze berdina erabiltzen jarraitzeko aukera izango dute.

*12. Behin betiko adjudikazioaren ondorengo betebeharrak.*

Behin betiko adjudikazioaren ondorengo betebeharrak honakoak dira:

a) Tasa ordaintzea.

b) Indarrean dagoen Baratze ekologikoak esleitu eta kudeatzeko arautegian ezarritako baldintzak betetzea.

*13. Araubide juridikoa.*

Baldintza-orri hauetan esplizituki aurreikusi gabeko egoeretan, baratze ekologikoak esleitzeko eta kudeatzeko arautegian ezarritakoa errespetatuko da.

Bergara, 2022ko ekainaren 17a. —Gorka Artola Alberdi, alkatea. (4093)

la condición de adjudicataria de alguna de las personas solicitantes inicialmente seleccionadas. En este caso, el plazo de concesión será el que reste desde entonces hasta la finalización del plazo de 31 de diciembre de 2025.

3. Una vez cerrado el proceso de adjudicación y completada la lista de espera definitiva, si se formularan nuevas solicitudes deberán presentarse cumplimentando el formulario del anexo I. Las personas solicitantes que cumplan los requisitos establecidos serán incluidas en la lista de espera, siempre por detrás de las anteriormente inscritos en la lista y por orden cronológico de solicitudes.

4. Una vez transcurrido el plazo máximo de las autorizaciones, el ayuntamiento realizará una nueva convocatoria de adjudicación de huertos, pudiendo aprobar nuevas bases y condiciones.

Las personas beneficiarias que hayan utilizado huertos en el periodo concesional anterior también podrán inscribirse en la nueva convocatoria. Si resultan ser nuevamente adjudicatarias, tendrán la opción de seguir utilizando la misma parcela utilizada anteriormente.

*12. Obligaciones tras la adjudicación definitiva.*

Las obligaciones posteriores a la adjudicación definitiva son:

a) Abonar la tasa.

b) Cumplir las condiciones establecidas en la normativa vigente para la adjudicación y gestión de los huertos ecológicos.

*13. Régimen jurídico.*

En todo aquello no previsto explícitamente en este documento de condiciones, se habrá de respetar lo establecido en la normativa para la adjudicación y gestión de huertos ecológicos.

Bergara, a 17 de junio de 2022.—El alcalde, Gorka Artola Alberdi. (4093)

I. ERANSKINA: ESKAERA-DOKUMENTUA | ANEXO I: DOCUMENTO DE SOLICITUD (INSTANCIA)

Bergarako Udala

## AISIALDIKO BARATZE EKOLOGIKOAK HARTZEKO LIZENTZIA ESKAERA

## SOLICITUD DE LICENCIA DE USO DE HUERTO ECOLÓGICO DE OCIO

*Esp. zk.a:*

### ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA / *PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD*

| | | |
|---|---|---|
| **Izena eta abizenak** / *Nombre y apellidos* | | **NAN** / *DNI* |
| **Helbidea** / *Domicilio* | **Herria** / *Población* | **P.K.** /*C.P.* |
| **Telefonoa(k)** | **Helbide elektronikoa** / *e-mail* | |

☐ **Bere izenean (interesduna da)** / *En nombre propio (es la persona interesada)* ☐ **Honakoaren izenean** / *En representacion de:*

### ORDEZKATUAREN DATUAK / *DATOS DE LA PERSONA REPRESENTADA*

| | | |
|---|---|---|
| **Izena eta abizenak** / *Nombre y apellidos* | | **NAN** / *DNI* |
| **Helbidea** / *Domicilio* | **Herria** / *Población* | **P.K.** /*C.P.* |
| **Telefonoa(k)** | **Helbide elektronikoa** / *e-mail* | |

### JAKINARAZPENAK / *NOTIFICACIONES*

**Aukeratu nori jakinarazi (hautatu aukeretako bat)** / *Elija a quién notificarlo (marque una opción)*

☐ Pertsona interesdunari (edo ordezkatuari) / *A la persona interesada (o representada)*
☐ Ordezkariari / *A la persona representante*

**Aukeratu nola jakinarazi** / *Elija el modo de notificación*

☐ Elektronikoki. *Adierazi abisuak jasotzeko helbide elektronikoa* / *Eléctrónicamente. Indique e-mail para avisos:*............................................
☐ Paperean / *En papel*

**OHARRA:** Jakinarazpen elektronikoa ikusteko identifikazio sistema elektronikoa beharko da (B@kQ, NAN elektronikoa…)
*NOTAS: Para acceder a la notificación electronica es necesario disponer de un sistema de identificación electrónica (B@kQ, DNI electrónico…)*

### BANKUAREN DATUAK (tasa ordaintzeko) / *DATOS BANCARIOS (para el pago de la tasa)*

| | |
|---|---|
| **Entitatea** / *Entidad* | **Titularra** / *Titular* |
| **IBAN** | |

Sinatzaileak **adierazten** du bere erantzukizunpean:
- Ezagutzen dituela Bergarako baratze ekologikoak adjudikatzeko eta kudeatzeko udal ordenantza, baita zozketa arautzen duten deialdiaren oinarriak ere, eta horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- Eskaera honetako datu bakoitza eta guztiak egiazkoak direla.

**Eskatzen du** zozketaren ondorioetarako honako egoera hauek kontuan hartzea:

☐ Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradun izatea
☐ Langabetua izatea

*La persona firmante **declara** bajo su responsabilidad que:*
- *Que conoce la Ordenanza municipal para la adjudicación y gestión de los huertos ecológicos de Bergara, así como las bases de la convocatoria que rige el sorteo, y que asume el compromiso de cumplirlas.*
- *Que son ciertos todos y cada uno de los datos consignados en esta solicitud.*

***Solicita** que, a efectos del sorteo, se tenga en cuenta su condición de:*

☐ *Persona beneficiaria de las Ayudas de Emergencia Social*
☐ *Desempleada*

EK\CV GAO-I-2022-04093

Halaber, ondorengo honen **jakitun geratzen da**:

- Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du aisialdiko baratze ekologikoak hartzeko ezarritako baldintzak betetzen direla: eskatzailearen sei hilabetez aurretiko errolda eta egiazko bizilekua, arau-hausterik ez izatea, eta udalarekiko zerga betebeharretan edo bestelakoetan egunean dagoela.
  Alegatu badu, Bergarako Udalak ofizioz ere egiaztatuko du eskatzailea gizarte larrialdietarako laguntzen onuradun dela.

  Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.
  ☐ Datuak kontsultatzearen aurka egiten dut.
  Aurka egonez gero, justifikatu arrazoiak (21. art., Erreg. (EB) 16/679):
  ................................................................................................
  ................................................................................................
- Eskaera honetako datu pertsonalak Bergarako Udalaren ardurapean tratatuko direla, eskaera izapidetu ahal izateko.
  Indarrean dagoen araudiak aitortutako eskubideak erabili ahal izango dituela helbide honetara zuzenduta: Bergarako Udala, San Martin Agirre Plaza 1, 20570 Bergara.
  Informazio osagarria eskuragarri dagoela Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan (www.bergara.eus/RAT). Tratamendua: 1001.

*Además, **queda enterada** de lo siguiente:*

- *Que el Ayuntamiento de Bergara verificará de oficio que se cumplen los requisitos establecidos en la Convocatoria abierta de licencia de uso de huerto ecológico de ocio: el empadronamiento y la residencia efectiva en los seis meses anteriores, así como la ausencia de infracciones cometidas y el cumplimiento de sus obligaciones tributarias o de otra índole para con este ayuntamiento.*
  *Si lo ha alegado, el Ayuntamiento de Bergara comprobará de oficio, además, que la persona solicitante es beneficiaria de las ayudas de emergencia social.*

  *La persona solicitante puede oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.*
  ☐ *Me opongo a que los datos sean consultados.*
  *En caso de oposición, justifique las razones (art. 21 Regl. (UE) 16/679):*
  ................................................................................................
  ................................................................................................
- *Que los datos personales de esta solicitud serán tratados bajo la responsabilidad del Ayuntamiento de Bergara, con el fin de tramitar la misma.*
  *Podrá ejercer sus derechos amparados por la normativa vigente dirigiéndose al Ayuntamiento de Bergara, Plaza San Martín Agirre 1, 20570 Bergara.*
  *La información complementaria está disponible en el Registro de Actividades de Tratamiento de Datos (www.bergara.eus/RAT). Tratamiento: 1001*

**Lekua, data eta sinadura** / Lugar, fecha y firma

**ESKAERA HONEKIN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

☐ Eskaera-inprimaki hau behar bezala beteta eta sinatuta

☐ Eskatzailearen identitate-agiria
Interesduna ez den beste pertsona batek aurkezten badu eskaria, ordezkaritza-agiria (F0136) aurkeztuko da, eta horrekin batera interesdunaren eta eskatzailearen identitate-agiria
Langabezia egoeran egotea alegatu bada, gainera:
☐ Langabetua dela egiaztatzen duen Lanbideren agiria

***DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR JUNTO CON ESTA SOLICITUD***

☐ *Este impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.*

☐ *Documento de identidad de la persona solicitante*
*Si la solicitud la realiza una persona distinta a la persona interesada, impreso de representación (F0136) acompañado del documento de identidad de la persona interesada y de la solicitante.*

*Si se ha alegado estar en situación de desempleo, además*
☐ *Certificado de Lanbide acreditando su situación de desempleada*

## INFORMAZIO GEHIAGO:

Ingurumen Zerbitzua (Bulego teknikoa)
Bergarako Udala
San Martin Agirre plaza 1, 2. solairua
20570 BERGARA

Telefonoa: 943 779 138
e-mail: hirigintza@bergara.eus

## MÁS INFORMACIÓN:

Servicio de Medio Ambiente (Oficina técnica)
Bergarako Udala – Ayuntamiento de Bergara
San Martin Agirre plaza 1, 2ª planta
20570 BERGARA

Teléfono: 943 779 138
e-mail: hirigintza@bergara.eus

EK\CV GAO-I-2022-04093